

KALITATE, INGURUMEN ETA LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO POLITIKA

SERBITZU ELKARTEA, SL, erakundeak, hirigintzako zerbitzuen, hondakinen eta bide azpiegituren zaintzan eta mantentze lanetan erreferentziazko enpresa den heinean, aspalditik du UNE-EN-ISO-9001, UNE-EN-ISO 14001, EMAS 1221/2009 Europar Araudia, 1505/2017 eta 2026/2018 Europar Araudiak aldatua eta UNE-EN-ISO 45001 ARAUAK ziurtatzeko erronka bere gain, eta oso kontuan hartzen du etengabeko berrikuntzaren bilaketan erronkak gainditzeko izaera, alderdi interesdunak gogobetetzea, ingurumenarekiko inpaktuak eta laneko arriskuak ahalik eta txikienak izatea eta legea betetzea.

Hortaz, Zuzendaritzak kalitatearekin, ingurumenarekin eta laneko segurtasunarekin duen konpromisoa enpresaren politikaren bidez gauzatzen du. Hona hemen politika hori xehe azalduta:

- Kudeaketa Sistema Bateratuaren ezarpena ondo garatzea guztien ardura da eta Zuzendaritzaren babesa eta konpromisoa ditu.
- Eskaintako zerbitzuen kalitatea hazkunde ekonomikorako espero dugunaren parte da.
- Eskaintzen ditugun zerbitzuak hobetzeko, baliabideak hobetu behar ditugu, bai giza baliabideak, bai materialak.
- Bezeroaren eskakizunak eta legeak, erregelamenduak eta erakundeak ontzat hartutako beste batzuk betetzeko konpromisoa dugu.
- Ingurumena zaintzea eta kutsaduren prebentzioa. Gure jarduerak ingurumenean sor ditzakeen inpaktuak saihestea, hortik datozen alderdi esanguratsuak minimizatuz.
- Lan-baldintza seguru eta osasungarriak emateko konpromisoa, gure lan-jarduerak eragin ditzakeen kalteak eta osasun-narriadura saihesteko, ezabatu ezin diren arriskuak kenduz edo murriztuz, eta horretarako langileekin, azpikontratatistekin eta beste alderdi interesdun batzuekin lankidetzan arituz.
- Ezarritako Kudeaketa Sistema Integrala betetzeko eta hobetzeko langile guztiak motibatzea, trebatzea eta inplikatzeko, ezarritako politika, helburuak eta programa erakunde barruan zabaldua eta sentibilizazio eta prestakuntza-ekintza egokiak eginda. Era berean, langileei eta haien ordezkariari kontsulta egiteko eta horien parte-hartzea bultzatzeko konpromisoarekin.
- Aldizka gure jarduerak ingurumenean, kalitatean eta laneko arriskuaren prebentziora sortzen dituen eraginak ebaluatzea, Kudeaketa Sistema Bateratuarekin jarraitzeko eta sistema hori etengabe hobetzeko.

Politika hau enpresarekin batera bilakatzen da eta, beraz, berrikusi egiten da etengabe egokituta egon dadin. Izan ere, Zuzendaritzak Sistemaren Berrikuspena egiten du, baita helburuena ere, hori baita helburu horiek ezartzeko eta berraztertze erreferentziazko markoa.

SERBITZU ELKARTEA, SLren politika enpresari egiten duen lanean hobekuntzak egiteko aukera ematen dion baliabidea da. Horrenbestez, langile guztiek ikusteko moduko tokian jartzen da ikusgai, eta erakundearentzat lan egiten duten pertsona guztiei jakinarazten zaie, baita interesa izan eta eskatzen duen pertsona orori ere.

Azkoitian, 2020ko urtarrilean

6. berrikustea Data: 2020ko urtarrila

SERBITZU ELKARTEA, S.L.
I.F.K.: B-20222410
Aitor Galarraga, 145
Serbitzu Elkartearen BARRIOA
20120 AZKOITIA